

«Talentudunak erakartzeko eta eusteko Fellows Gipuzkoa Programa»ren 2022ko deialdia (2022/03/18ko GAO)

Xedea

2022ko deialdia egitea hautapen prozedura bidez nazioarte mailan garrantzia duten ikerketa taldeetan doktoratu osteko formazioa jaso duten ikertzaileak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen Gipuzkoako zentroetan sartzeko laguntzeko

Deialdi buruzko informazio guztia:

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/talentua/fellows-gipuzkoa>

Diruz lagundutako jarduerak

- a. **Talentudunak erakartzea:** Ekintza honen bidez, nazioarte mailako formazioa duten pertsonak erakarri nahi ditugu entitate onuradunen jardun esparruetan proiektuak gauzatzeko, eta gero, hurrengo fase batean, EAEko ikerketa talderen batean sartzeko. Ikertzaile horiek baldintza hauek beteko dituzte: doktoreak izango dira, eta doktoratu osteko formazioan arituak, dagokien esparruan nazioarte mailako garrantzia duen ikerketa talde batean. Ikertzailea kanpotik erakarri dela ulertuko da baldin eta azken hiru urteetan ez badu 6 hilabete baino gehiagoz lan egin Euskal Herrian.
- b. **Talentudunei eustea:** Ekintza honen bidez jarraipena eman nahi zaie, gehienez hiru urtez, Fellows Gipuzkoa Programaren bidez lagundu diren ikerlariei, ikerketa talde batean sartu arte.

Eskaerak aurkezteko modua eta epea

Eskaeraren instantzia eta erantsitako dokumentazioa modu elektronikoan, informatikoan edo telematikoan aurkeztuko dira, Gipuzkoako Foru Aldundiko goitza elektronikoaren bitartez honako helbidean:

ESKABIDEA

Eskaerak aurkezteko epea 2022ko apirilaren 26an bukatuko da, 13:00etan.

Aurkeztu behar diren agiriak

Eskatzaile guztientzat:

a) Erantzukizun aitortpena, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 12. artikuluan ezarritako onuradun izaera lortzeko inongo debekurik ez izatearena.

b) Halakorik izanez gero, eskatzaileak edozein administraziori edo estatu zein nazioarte mailako entitate publiko nahiz pribaturi eskatutako edo haiengandik eskuratutako dirulaguntzen, sarreren edo baliabideen adierazpena, eskatutakoekin bateraezinak diren dirulaguntzak jasotzen dituen.

c) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean egiaztatuta egotearen ziurtagiria.

d) Entitateak dirulaguntza eskatzen dueneko denboraldian, ikertzailea kontratatzeko aurreikusitako aurrekontua.

Talentudunak erakartzeko eskaerak:

a) Kontratatuko den ikertzailearen CVa, 6.1.a) oinarrian ezartzen diren baloratzeko irizpideak adierazten dituen.

- Nazioarteko formazioa: nazioarteko zentroetan egindako egonaldiaren iraupena eta ikertzailearekin lan egin duen ikerketa taldearen CVa.
- Argitalpenak: azken bost urteetako artikulak, indizeak H, WoS, Scopus, ISI, kongresu eta bilera zientifikoetan egindako aurkezpenak.
- Proiektuak: azken bost urteetakoak, nazioartekoak, Europakoak, estatukoak, eskualdekoak...
- Beste merezimendu batzuk: enprekin egindako elkarlan proiektuak, patenteak eta erabilgarritasun-ereduak, spin-offak, beka...
- Gipuzkoarekiko lotura.

b) Ikertzailea sartuko den ikerketa taldeak egingo duen lanaren memoria, 6.1.b) oinarrian ezartzen diren baloratzeko irizpideak adierazten dituen.

- Helburuak eta lanaren plangintza: helburuak adierazi eta lanaren plangintzan lortzeko eman behar diren pausuak zehaztu. Planing-ean datak adierazi.
- Aurreikusitako emaitzak: argitalpenak, kongresuen aurkezpenak, patenteak, spin-offak sorkuntza, produktu berriak edo terapiak, nazioarteko proiektu berriak, elkarlanak, esparru ezberdinetan hobekuntzak (gizartekoak, ekonomikoak, ekologikoak,...) Emaitza horien lorpena noizko aurreikusten den zehaztuko da.

c) Ikertzailea sartuko den ikerketa taldearen memoria, 6.1.c) oinarrian ezartzen diren baloratzeko irizpideak adierazten dituen.

- Taldea osatzen duten kideen kopuruak eta profila: doktoreak, doktoratu aurreko ikerlariak, bekadunak, eta laguntzaileak, baita emakume kopurua ere.
- Taldeak lortu dituen emaitzak: azken bost urteetan, argitaratutako artikulak, konkurrentziako proiektuetan partaidetza, patenteak, produktu berriak, abian jarritako spin-offak, enpresekiko kontratuak, elkarlanak...

d) Dirulaguntza eskatzen duen entitatearen memoria, 6.1.d) oinarrian ezartzen diren baloratzeko irizpideak adierazten dituen.

- Tamaina: entitatearen pertsona kopurua, entitatean lan egiten duten talde kopurua, entitatearen ikerketa ildoak...
- Ikerlaria sartuko den ikerketa taldearen garrantzia entitate barruan: taldearen ikerketa ildoak...
- Entitatearen emaitzak: (azken bost urteetan) argitaratutako artikulak, konkurrentziako proiektuetan partaidetza, patenteak, produktu berriak, abian jarritako spin-offak, enpresekiko kontratuak, elkarlanak...
- Ikertzailea finantzatzeko aukera.

Talentudunak eusteko eskaerak

a) Aurreko aldiaren zenbateraino bete diren ezarrita zeuden helburuak eta lan plana: helburuak gogoraraziko dira, ikerketa osokoak eta finantzatutako epealdikoak, eta zehaztuko dira egindako lana eta lortutako helburuak eskaeraren aurkezteko data arte.

b) Egingo duen lanaren memoria: lana ikerketa osoan lortu beharreko helburuen markoan kokatuko da, eta eskatutako dirulaguntzaren xede den proiektuaren epealdian zehaztuko dira egingo diren faseak, planinga eta lortu nahi diren emaitzak.

Diru laguntzen zenbatekoa

Ikerlaria kontratatzeak eragindako gastuen %100 arte finantzatuko da, gehienez ere 50.000 euroekin lehenengo kontratazio urtean; %80 arte bigarren urtean, gehienez ere 40.000 euroekin; eta %70 arte hirugarren urtean, 35.000 euroekin gehienez.

Barne prozedura:

Deialdi honetara aurkeztu nahi duen ikertzaileak jakinarazi beharko dio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari convocatorias.dgi@ehu.eus helbide elektronikoaren bidez **apirilaren 20a baino lehen**, harrera taldea zein izango den adieraziz, errektoreordetzak deialdiak eskatzen duen finantzaketa gain har dezan. Ikerketaren aldeko errektoreordetzak egiaztatuko du nahikoa krediturik dagoen talde eta proiektuen atalean, finantzaketari aurre egin ahal izateko eta ikertzaile nagusia ados dagoen, baliatu beharreko funtsak helburu horretan baliatzeke.

GARRANTZITSUA: Harrera taldeak **bere egin beharko du kontratuaren kostu osoa**, bai eta laguntza hurrengo urteetan ematen ez bada ere, ikertzailearen jarraikortasuna bermatu beharko baita **deialdiak ezartzen dituen hiru urteetan zehar**.

Harremanetarako:

UPV/EHU:

Tfno.: 94 601 80 08

Helbide elektronikoa:

igz.deialdiak@ehu.eus

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA:

Tfno.: 943 112 233

Helbide elektronikoa:

msalustiano@gipuzkoa.eus